# XUXEN kode irekian

# Eskuliburua

# OpenOffice.org 2.x

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


Egileak:

ixa.si.ehu.es

www.eleka.net

# Aurkibidea


OpenOffice.org.......................................................................................... ...............3

Eskakizunak........................................................................................................ ...3

Instalazioa........................................................................................................... ...3

Erabilera........................................................................................ ........................5

Lizentzia............................................................................................... ..................8

# OpenOffice.org

## Eskakizunak

XUXEN kode irekikoak Hunspell (http://hunspell.sourceforge.net) zuzentzaile-motorra erabiltzen du, beraz ezinbestekoa da OpenOffice.org-ek Hunspell izatea. OpenOffice.org-k, 2.0.2 bertsiotik aurrera Hunspell barnean dakarrenez 2.0.2 bertsioa edo berriagoa erabiltzea gomendatzen da.

Ordenagailuaren eskakizunak OpenOffice.org aplikazioak dituen berdinak dira, zehaztasunak jakin nahi izanez gero ondoko helbidean dago informazio osoa:

http://www.openoffice.org/dev_docs/source/sys_reqs_20.html

## Instalazioa

XUXEN-en instalazioa OpenOffice.org-en egiteko pauso hauek eman behar dira:

1. Hiztegia (eu-ES-hunspell.tar.gz izenekoa) jaitsi www.euskara.euskadi.net web gunetik.

2. Hiztegia destrinkotu (***tar zxf*** *eu-ES-hunspell.tar.gz* komandoarekin, adibidez), bertan bi fitxategi daude, hiztegia eta afixa.

| Izena | Tamaina |
|---|---|
| eu_ES | 2 elementu |
| eu_ES.aff | 3,1 MB |
| eu_ES.dic | 2,1 MB |

3. OpenOffice.org-ek hiztegiak gordetzen dituen karpetan sartu bi fitxategi hauek. Instalazioaren arabera kokapena aldatu daiteke baina orokorrean ondorengoa izango da:

```
/usr/lib/openoffice.org2.0/share/dict/ooo/
```




4. Aurreko puntuan adierazitako kokapenean ***dictionary.lst*** izeneko fitxategia editatu (**emacs** edo **gedit** bezalako aplikazioekin, adibidez) eta azken lerroaren ondoren lerro hau gehitu:

```
DICT eu ANY eu-ES
```




Behin lerro berria sartu ondoren fitxategia gorde eta itxi.

5. Aurreko pausoak eginda XUXEN behar bezala instalatuta dago, OpenOffice.org martxan baldin badago berrabiatu egin behar da hiztegi berria ezagutu dezan.

## Erabilera

Behin instalazioa egin ondoren, OpenOffice.org-en XUXEN erabiltzeko *“Tools > Options > Language Settings > Languages”* atalera jo eta bertan *“Default languages for documents”* eremuan “Basque” aukeratu behar da. “Basque” aukerak bere ondoan  sinboloa edukiko du hiztegiak ondo instalatu badira.






AutoSpellCheck edo AutoZuzenketa aukera aktibatuta baduzu, idazten ari zaren heinean, okertzat diren hitzak gorriz azpimarratuta aterako dira. Zuzenketa-proposamen bat lortzeko, hitzaren gainean jarri eta saguaren eskuineko botoia sakatu.




*AutoSpellCheck aktibatuta*




*Hitz oker bat detektatu da*




*Zuzenketa proposamenak ematen ditu.*

**Oharra**: Euskarazko hiztegiaren tamaina handia dela eta lehenengo hitza zuzentzerako orduan (OpenOffice.org-ek hiztegia kargatzen duen momentua) segundo batzuk pasako ditu, hortik aurrera bere funtzionamendua edozein zuzentzaileren parekoa da.

# Lizentzia

GNU General Public License (GPL) 2. bertsioa lizentziapean argitaratua.

http://www.fsf.org/licenses/licenses.html